



## ARARTEKOAK ADINGABEKOEI BALIOAK TRANSMITITZEARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIA AURKEZTEN DIO

### GIZA ESKUBIDEEN ETA HERRITARREN ESKAEREN BATZORDEARI

2009ko azaroaren 25a

Joan den irailaren 28an, ia bi urteko lanaren ondoren, legebiltzar honetako lehendakariari eman nion orain zuei aurkeztera noan txosten hau, *Adingabekoei balioak transmititzea* izenburukoa.

Txosten konplexu eta asmo handiko honetan zera aztertzen da batez ere: gure autonomia-erkidegoko adingabeek zenbateraino berenganatzen dituzten ala ez oinarrizko balio batzuk (balio horietako askok bizikidetasunarekin eta giza eskubideak errespetatzearekin dute zerikusia), eta balio horiek transmititu edo eraikitzean gizarte-eragileek nolako indarra edo eragina duten.

Lehenago ere sarritan esan dudanez, Ararteko erakundearentzat funtsezko, lehenagoko gaia da haurrei balioak helaraztea. Egiaz, lehenagoko beste txosten batzuetan ere aztertu izan dugu gai hori, zehazki hezkuntza-sistemako bizikidetzeta eta gatazkak aztertu genituen txostenean (2006. urtearen bukaeran argitaratu zen eta 2007. urtean eztabaidatu zen batzorde honetan), eta berrikiago, terrorismoaren biktimei buruzko txostenean (hori hemen bertan eztabaidatu zen, orain aste gutxi).

Baina orain aurkezten ari garen txosten berri honetan, gai hori modu askoz sistematikagoan aztertu da eta **balio nagusi** batzuk nabarmendu dira. Bereziki, honako hauek:

- desberdintasuna onartzea –elkarrekin bizitzeko oinarrizkoa baita–; zehazki, pertsonen sexuaren, jatorriaren, etniaren, ezgaitasunaren edo sexu-joeraren arabeko desberdintasuna onartzea;
- gure adingabeen ideietan edo portaeretan indarkeria agertzea, gatazkak konpontzeko modu onargarri gisa, eta, Euskadin gaudenez, ezinbestean, ETArek indarkeria terrorista onartzea ala gaitzestea;
- ingurumena errespetatu eta zaintzea...

Hau da, balio horiek funtsezkoak dira gero eta askotarikoagoa den gizartearentzat, pertsona guztien eskubideak errespetatu daitezkeen, beren ezberdintasunen gainetik, eta elkarrekin bakean bizi daitezkeen. Eta oinarrizko balio horiekin batera, kontrabalioak ere aztertu dira (sexismoa, arrazakeria, xenofobia, homofobia, e.a.), baita ere horiek gure hurrengan zenbateraino dauden errotuta.





**Sozializazio-eragile edo balioak helarazteko eragileei** dagokienez, eragile klasikoak aztertu dira (familia-ingurunea, eskola-ingurunea, berdinen taldea, eta abar), baina gero eta indar handiagoa hartzen ari diren beste batzuk ere bai, esate baterako, hedabideak edo teknologia berriak (telebista, Internet, bideo-jokoak, e.a.), sarri erabiltzen direlako eta, hain justu, adingabeen artean gero eta zabaldago daudelako.

Lehen aurreratu dudanez, asmo handiko txostena da, hala helburuen nola metodologiaren aldetik, eta ia bi urteko lana eman du. Are gehiago, esan genezake txosten batean bateratutako hainbat txosten ditugula hemen, era askotako gaiak adin ugari eta askotariko informazio-iturriak aztertu direlako.

Horrela, txostenean **hiru adin-talde** bildu eta sistematikoki aztertu dira. Adin-talde horiek bat datoz hezkuntzako hiru ziklo edo etaparekin: 8-10 urte (Lehen Hezkuntzako 2. zikloa); 10-12 urte (Lehen Hezkuntzako 3. zikloa); 12-16 urte (DBH). Horretarako, propio taxuturiko galdera-sortak erabili dira (txostenean bertan ageri dira, eranskin moduan) eta EAEko 25 ikastetxetako **1.829 ikasleko lagin** zabalari aplikatu zaizkio. Galdera-sorta horietakoren bat egitea oso nekeza izan zen, bereziki txikienentzat diseinaturikoa (8-10 urte), horrelako adinak, oro har, oso gutxitan aztertu baitira; kasu horretan, test aurreko batzuk eta aldaketa garrantzitsuak egin behar izan ziren.

Baina, galdera-sortez gain, eztabaida-taldeak egin dira. Horien bidez, zuzen-zuzenean bildu dira nerabeen beren, haien aita-amen, irakasleen eta hezkuntzako beste profesional batzuen iritziak eta proposamenak.

Ikusiko zenutenez, txostenean bereiz aztertzen da adin bakoitzerako lortu den informazioa, zein bere kapituluan edo idatz-zatian (ikusitako txostenaren bigarren zatia, 1, 2 eta 3. idatz-zatiak). Eztabaida-taldeetan bildutako informazioa ere berriazko idatz-zati batean jaso da.

Galdera-sorten bitartez eskuratu diren datuak aztertzeko, normala denez, **hainbat aldagai** baliatu dira: sexua; adina; jatorria; hezkuntza-sarea; lurralde historikoa; hizkuntza-eredua... Kasu batzuetan, alde nabarmenak ikusi dira; beste batzuetan, hutsalak. Aldagai horien arabera emaitzetan alde esanguratsuak ikusi direnean, datuak xehatuta eman dira. Aldagairik esanguratsuena, argi eta garbi, sexuarena izan da; hau da, mutilek eta neskek balorazio eta erantzun desberdinak eman dituzte (normalean, emaitzak nesken aldekoak izan dira).

Baina, hiru adin-tarteez edo aintzat hartutako aldagaiez gain, badugu beste arrazoi bat txosten honetan hainbat txosten bildu ditugula esateko: **informazio asko** eta **askotarikoa** bildu dela. Honelako informazioa, hain zuzen:

- Gure adingabeek zer balio- eta kontrabalio-eskalak dituzten.
- Zer gizarte-eragileri ematen dioten balio handiagoa edo balio gutxiago.
- Zer praktika dituzten, esate baterako, teknologia berrien erabileran.
- Nola erabiltzen duten aisialdia.



- Nola baloratzen duten bizikidetasuna familia barruan edo zeintzuk diren eztabaida-arrazoiak eremu horretan.
- Zenbaterainoko tolerantzia- edo intolerantzia agertzen duten desberdintasun jakin batzuen aurrean.
- Zenbateraino dauden konprometituta ingurumenarekin.
- Zer jarrera duten ETArekin aurrean, indarkeria erabiltzearen aurrean, pertsona guztien eskubideak errespetatzearen aurrean...

Gai horietako asko, berez, berariazko txostenak osatzeko lain izango lirateke. Ez da erraza, beraz, hainbeste gairen artean, garrantzitsuenak edo kezkarrienak zeintzuk iruditzen zaizkigun adierazi edo nabarmentzea. Horren antzeko zerbait gertatzen da datuekin ere. Kontuan izan bedi txostenean datu eta grafikoaren 250 taula baino gehiago eskaintzen direla.

Aurkezpen honetarako, labur beharrez, hiru hurbiltze mota egingo ditugu:

- Lehenik, lan osotik ateratako hainbat datu aipatuko ditugu, garrantzitsuak direlako edo txostenean eskaintzen diren antzeko edo xehatutako beste datu batzuen adibide gisa.
- Bigarrenik, ikuspegi laburragoa emango dugu, esanguratsuenak edo kezkarrienak iruditzen zaizkigun gaiak nabarmenduko ditugu.
- Hirugarrenik, gure adingabeei balioak hobeto helarazteko egin ditugun gomendioak iruzkinduko ditugu.

## A) TXOSTENETIK AUKERATU DIREN DATU-TAULA ETA GRAFIKO BATZUK

### 1. Grafikoa

Lehen grafiko honetan argi ikus daiteke, oro har, zeintzuk diren aztertutako balio eta kontrabalio nagusiak edota zein balio eta kontrabalio helarazten dituzten txostenean arretaz analizatu diren lau gizarte-eragileetako bakoitzak: alegia, teknologia berri eta hedabideak (berariaz aipatzen dira publizitate-iragarkiak); eskolak; familiak; eta berdinen taldeak.

Ikusten denez, kasu guztietan balioak nahiz kontrabalioak helarazten dira, baina kasu bakoitzean nabarmendutako elementuei erreparatzen badiegu, proportzioa aldatu egiten da eragile batzuetatik besteetara.

Heziketaren ikuspuntutik, zenbat eta eragile gehiagok eragin norabide zuzenean, indarrak batuz, orduan aukera gehiago egongo dira gure adingabeengan balio positiboak eraikitzeko. Eta alderantziz.

### 1. taula

Lehen esan dudanez, erabili diren hiru galdera-sortei ikasleen lagin zabal batek emandako erantzunak dira txostenaren oinarri nagusia. Taula honetan ikus daiteke



ikasleen lagin hori –hau da, itaundutako 1.829 ikasleak– nola banatzen den hezkuntza-mailaren, lurralde historikoen, eskola-sareen eta hizkuntza-ereduen arabera. Denera, 25 ikastetxetako 100 ikasgela hautatu ziren, hemen aipatu ditugun aldagai guztiak kontuan hartuta.

#### 4. taula

4. taulan ikus daiteke, ikasleen iritziz, non ikasten edo aditzen dituzten bizitzan orientatzeko garrantzitsuentzat jotzen dituzten gauzak. Agerikoa denez, adinean aurrera egin ahala, hainbat aldaketa ikusten dira balorazio horretan, baina joerek ez dute zalantza egiteko aukerarik ematen. Guztien artean, familiaren arrastoa nabarmenduko dugu, horixe aipatzen baitute lehen tokian ikasleetatik %90ek, baita DBHko ikasle nerabeek ere; edo irakasleen garrantzia: hori dezente murrizten da Bigarren Hezkuntzan; lagun-taldea, etengabeko eragina duela adierazi baitu maila orotako ikasleen erdiak baino gehiagok; beste eragile batzuek (telebistak, Internetek, kaleak, liburuek edo erlijioak...) indar aldakorra dute.

Azpitarragarriena, dudarik gabe, familiari eman dioten funtsezko eginkizuna iruditzen zaigu.

Ikus ditzagun orain, adibide gisa, Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleei, alegia, 7 eta 10 urte bitartekoei egindako galdeketa lortutako datu batzuk.

#### 11. grafikoa

Eskolako bizikidetasunari buruzko ikerketa gehienetan –baita ikastetxeetako bizikidetzeta eta gatazkei buruzko gure azken txostenean ere– batez ere Bigarren Hezkuntzan jartzen da arreta, arrazoi askorengatik.

Grafiko honetan ikusten dugu Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan jada agertzen direla txosten hartan aztertu genituen portaeretako batzuk, baita ere ikasleek berek zenbateraino onartzen dituzten. Esaterako, honelako portaerak: irakaslea iraintzea, ikaskideei mehatxu egitea, haiek baztertzea, jotzea, iseka egitea edo iraintzea. Lortutako erantzunetan adierazten denez, portaera horiek gutxitan gertatzen dira, baina %6tik %38ra bitartean jazo daitezke, kasuen arabera.

#### 32. taula

Itaundutako hiru irakaskuntza-zikloetan eskuratutako emaitzak alderatzen direnean, ikusten da adin txikikoen artean Internet gero eta gehiago erabiltzen dela. Horrela, DBHn, %5,4k soilik diote ez dutela erabiltzen, eta lehen baino askoz maizago erabiltzen da, izan ere, %63,6k sarritan erabiltzen dutela diote; aldiz, 7-10 urte bitarteko umeen artean, %28,7k erabiltzen dute sarri.

#### 34. taula





Beraz, sozializazio-eragile horrek egunetik egunera eragin handiagoa du adingabeen artean. Baliabide teknologiko horrek heziketa-ahalmen izugarria du, baina baita arriskuak ere, oker erabiltzen baldin bada.

Bildutako datuek erakusten dute, adibidez –34. taulan ikus daitekeen bezala–, gurasoek edo helduek oso gutxitan kontrolatzen dutela Interneten erabilera. Egia da umeek adinean aurrera egin ahala, gurasoek edo tutoreek arauak egokitu eta kontrol batzuk lasaitu behar dituztela, baina adingabearen pribatutasuna mantendu arren, beren seme-alabek Interneten zer egiten duten eta zertarako baliatzen duten jakin beharko lukete. Hala ere, umea Interneten bakarrik sartzea izaten da normalena, ohikoena, edozein adin duela ere.

### 37. taula

Bideo-jokoak ere aztertu dira, hain zuzen, bideo-jokoaren egokitasuna eta helarazten dituzten balioak eta zenbateraino erabiltzen diren.

Kasu honetan, generoaren arabera ezberdintasunak ez dira garrantzitsuak, eta zera erakusten dute: mutilak neskak baino maizago jolasten direla egunero, baina, oro har, "ia egunero" eta "astean hainbat aldiz" aukerak batzen baditugu, neskak direla sarrien jolasten direnak. Edonola ere, horrelako ohiturak oso zabaldua daude adin hauetan (gogora dezagun datuok 7 eta 10 urte bitarteko umeen erantzunei dagozkiela).

Ume horiek erabiltzen dituzten joko gehientsuenak (%87,4, bildutako datuetan) adinera egokitutako bideo-jokoak dira. Alabaina, %12,6k egokitu gabeko jokoak baliatzen dituzte, ia denak indarkeria-, borroka- edo gerra-jokoak. Horrelako jokoak, datuen arabera, argiro maskulinoak dira: mutiletatik %54k erabiltzen dituzte, baina nesketatik %9k bakarrik. Baina badira argi eta garbi femeninoak diren jokoak ere: maskotak edo haurtxoak zaindu eta babesteko jokoak, esaterako (horrelakoak aukeratzen dituzte nesketatik %25,8k, baina mutiletatik %7k soilik).

### 16. grafikoa

Haurren hiru laurdenek telebista ikusten dute gauean. Baina erdiak baino gehiagok eskolara joan aurretik ere ikusten dute, baita handik irtendakoan ere. Proporzio hori zertxobait murrizten da eguerdiko orduetan (ziurrenik, eskoletako jantokien eraginagatik).

Txostenean datu ugari eskaintzen dira ordu horietan hurrek ikusten dituzten programa zehatzei buruz. Programak asko aldatzen dira, ikusten denez. Baina datuek erakusten dute ez dituztela ikusten propio haurrentzat sortutako programak soilik, baizik eta beste asko ere bai, batzuk haurrentzat egokiak eta beste batzuk desegokiak. Reality show-ak, esate baterako, itaundutako 7 eta 10 urte bitarteko haurretatik %89,6k ikusten dituzte, edo helduentzako telesailak, berriz, %13,7k.





Taula horiek txostenean eskaintzen diren beste taula askoren adibide gisa balio digute. Horiei esker, hobeto dakigu teknologia berriak zenbateraino erabiltzen diren eta, beraz, zenbateraino eragiten duten (gero eta gehiago) adingabeen sozializazioan.

#### 48. taula

Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleei dagozkien adibideei azkena emateko, ikus ditzagun, jada hain adin txikietan, sexu-rolak esleitzeari buruzko bi taula.

7 eta 10 urte bitarteko neska-mutilentzat rol maskulinoak dira telebista konpontzea (%91,5), bonbilla bat aldatzea (%84) eta koadro bat eskegitzea (%65,5); aldiz, haientzat rol femeninoak dira arropa lisatzea (%85,2), zorua garbitzea (%66,9), janaria prestatzea (%62,5), erosketak egitea (%53) eta platerak garbitzea (%52,9). Datu horiek bat datoz, ia ziurtasun osoz, beraien etxeetan egiten denarekin eta ikusten dutenarekin.

Hasieran adierazi dugun legez, txosten honetan adin-tarte ezberdinetan aztertu dira balioak. Orain arte ikasle txikiak datu batzuk ikusi ditugu, Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleak. Ikus ditzagun orain, gutxienez, ikasle handixeagoen, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko (10etik 12-13 urte bitarteko) dagozkien datuen hiru adibide.

#### 24. grafikoa

24. grafikoko datuetatik ondoriozta liteke adin horietan nolabaiteko berdintasunez ikusten dituztela familiako rolak, bikote harremanetan nagusitu behar duten rolak. Horrela, lehen hiru itemek, marra gorriaren gainean agertzen diren horiek, %72 eta 93 bitarteko atxikipena lortzen dute (oso handia, alegia) eta mutilen eta nesken arteko iritzi-desberdintasunak ez dira esanguratsuak.

Haatik, emaitzak asko aldatzen dira bikote harremanen alderdi funtzionalei buruz galdetzen denean (normalagoa da neskek sukaldean laguntzea eta mutilek entxufeak konpontzen; amak zaindu behar izaten ditu seme-alabak...). Hemen, mutilen eta nesken iritzien arteko aldeak beti esanguratsuak izaten dira; alde horiek kasu askotan 9-10 puntura iristen dira.

Horrek guztiak zera adierazten du: kontzeptu mailan rolen nolabaiteko berdintasuna lortu dela, baina rolen sexu-banaketa oraindik sarritan agertzen dela alderdirik zehatzenetan, funtzionalenetan, horietan oraindik pisu handia baitute eskema tradizionalak. Nolanahi ere –eta hori ona da– aipatutako hori ez da gehienek jarrera.

#### 28. grafikoa





Hirugarren zikloko ikasleei beste zerbait ere galdetu genien: hain justu, zer-nolako garrantzia ematen zioten arrazoi ezberdinengatik gizarte-irudi estigmatizatua duten ikaskideekin mahaia eta ikasgela partekatzeari.

Ikus daitekeenez, ikasgela ETako kide, neonazi edo ijitoen seme-alabekin partekatzeak sortzen du arbuiorik handiena, mutilengan nahiz neskenan, baina alde garrantzitsu batzuk daude bi sexuen artean.

Homosexualitatea, oraindik ere, kezkatzeko faktore aski garrantzitsua da: %40,6rena mutilen kasuan, %31,8rena nesken kasuan.

Etorkina edo musulmana izatearekin, islamiar zapia janztearekin eta abarrekin lotutako desberdintasunek %25 inguruko kezka sortzen dute. Indar Armatueta, Guardia Zibileko, Polizia edo Ertzaintzako kide diren gurasoak dituzten ikaskideak izateak %25i sortzen die kezka, eta, ia kasu guztietan, gehiago mutilei neskei baino.

Azken tokietan agertzen da egoera fisiko edo sozialak –gizen egotea, gaizki jantzita ibiltzea...–k edo ezgaitasunen batek eragindako estigmatizazioak sortzen duen gaitzespena. Halako kasuetan, arbuioa %20 inguruan ibiltzen da eta beti mutilak neskek baino baztertzaileago agertzen dira.

### 32. grafikoa

Hezkuntza-maila honetan ere aztertu dira teknologia berrien erabilera eta adingabeen bizitzan duten eragina: non, noiz, zertarako edo zenbatero erabiltzen dituzten. Ikus dezagun, etsenplu gisa, nola erabiltzen duten Internet.

32. grafikoa ikusten denez, Internet gehienbat aisialdiko, harremanetarako eta heziketan laguntzeko tresna bat da neska-mutilentzat. Kasu honetan ere erabileran alde nabarmenak daude mutilen eta nesken artean.

Datu horiek, beste gauza batzuen artean, kolokan jartzen dute nahiko zabaldua dagoen ideia hau: ordenagailuak jendea bere ingurutik isolatzen duela. Messenger, Tuenti, Skype eta horien antzeko plataformak izugarritzko arrakasta dute nerabeen artean eta harreman-tresna berriak dira dagoeneko. Badituzte arriskuak, baina baita potentzialtasun handiak ere.

### 37. grafikoa

Txostenaren gai nagusiari buruz (alegia, balioen sistema eta desberdintasunarekiko tolerantzia eta intolerantzia mailak), 37. grafikoa laburtzen dira honako kontuok: biztanleen sexu-joerak, etorkina izatea, gutxiengo etniko batekoa izatea (ijitoa, adibidez) edo ezgaitasunen bat izatea.

Egindako galdera-motak kontuan hartuta, badirudi berdintasunezko jarrerak eta jarrera tolerantetarako nahiko hedatuta daudela ideia orokorrak adierazten diren



formulazioen aurrean (esate baterako, “Etorkinak gu bezalakoak dira...” edo “Homosexualitatea gaixotasun bat da”).

Baina egoera oso bestelakoa da portaera zehatzak baloratu behar direnean. Horrela, adibidez, “Berdin zait homosexualak ezkontzen badira, baina ezin ditut bi mutil edo bi neska elkarri musuka ikusi” dioen itemak %40tik gorako gaitzespena sortu du, mutilen nahiz nesken artean.

Horren antzeko zerbait gertatzen da, maila apalagoan bada ere, adierazpen honen aurrean: “Hobe da gelan haur etorkinik ez egotea”. Baiezko erantzuna eman dute mutiletatik %36,5ek eta nesketatik %25,7k; portzentaje aski altuak dira horiek.

Hortaz, itxura guztien arabera, portaeren kontzeptua edo teoria onartzearen atzetik doaz portaera zehatzak, gizarte osoarentzat gertatzen den bezala.

Hemendik aurrera analizatuko ditugun datuak oro DBHko ikasleei dagozkie, alegia, 13-14 eta 16-17 urte bitarteko nerabeei. Datu horietatik, esanguratsuak edo oraindaino jorratu gabeko gaiak azaltzen dituztenak bereiziko ditugu.

#### 100. taula

Ez da beti erraza izaten famili eremuko datuak izatea. Kasu honetan, adibidez, jakin dezakegu nerabeek beren gurasoekin batera duten denbora zertan eta nola erabiltzen duten, baita gurasoak zenbateraino parte hartzen duten ere.

100. taula, datu ugari ematen du, baina taula horretatik esanguratsuena zera da, dudarik gabe: etxean pertsona heldurik gabe denbora bakarrik pasatzen duten nerabeen portzentaje altua (%58,7) eta, batez ere, oso lanpetuta egoteagatik beren seme-alabak non dauden eta zer egiten duten ahazten duten gurasoen portzentajea (%10,5). Hori da, behintzat, beren seme-alabek sentitzen eta esaten dutena.

#### 51. grafikoa

Nerabeek teknologia berriak erabiltzearen gainean dauden datu anitzen artean, hemen txataren erabilerari buruzkoak soilik bilduko ditugu, txatak beste pertsona batzuekin birtualki erlazionatzeko aukera ematen baitu. Datu horiek jarduera arriskutsu jakin batzuk daudela erakusten digute, hala nola gai pertsonalez hitz egitean nork bere datuak ematea (nesketan %41,7k gordetzen dituzte isilean beraien datuak, eta mutiletan %31,7k ez dute esaten nor diren), edo ezezagunekin txat bidez elkartzekotan geratzea (mutiletatik %26,5ek eta nesketatik %13,3k egiten dute hori).

o

#### 122. taula

Taula horretan ikusten da zenbateraino gertatzen diren gizalegearen kontrako portaera jakin batzuk ingurumenarekin, ondasun publikoekin, ezezagunekin, inguru





hurbileko pertsonekin, drogekin...; eta nerabegaroko urteetan portaera horiek adinarekin nola bilakatzen diren ere ikusten da.

Informazio ugari ematen da, baina hemen honako hauek azpimarratuko dugu, esate baterako: begirunerik eza erakusten dute ezezagunekin (lautik batek) edo beren heziketa, zaintza edo ongizatearen arduradunekin (%25-%30ek noizbait guraso edo irakasleak iraindu dituzte). Edo ia ez dute ondasun publikoekiko begirunerik erakusten (%30ek onartzen dute noizbait hormak pintatu dituztela edo kaleko, eskolako edo beste toki publikoren bateko ateak marratu dituztela).

Portzentajea, zorionez, askoz txikiagoa bada ere, deigarria da adin horietako mutiletatik %3,7k edo nesketatik %1ek hauxe onartzea: "Inoiz nirekin ligatu nahi ez zuen mutil/neska bat fisikoki behartu dut" (ikus 121. taulako datuak).

Baina agian datu horiek erakusten duten gauzarik kezagarriena hauxe da: espero ez bezala, zenbat eta adinez nagusiago izan, orduan eta gizalegearen kontrako portaera gehiago daudela. Horren haritik, alderik handienak, betiere ikuspegi negatibotik begiratuta, irakasleei egiten zaizkien irainetan eta droga-kontsumoan (alkohola eta porroak) nabari dira.

(Aukera honetaz baliatuta, jakinarazi nahi dizuet datozen hilabeteetan nerabeei eta drogei buruzko txosten berezi bat aurkeztu ahal izango dugula, txosten horren prestakuntza oso aurreratuta baitago.)

#### 124. taula

Taula honek ere informazio asko ematen digu gure nerabeei beren bizitzan zein balio eta lehentasun dituzten jakiteko. Horrela:

Beraien lehentasun nagusia harreman onak izatea da, batik bat familiarekin (%98), lagunekin (%92) eta bikote lagunarekin (%90). Gainera, azken kasu horretan, balio handiagoa ematen diote emozionalki pozik egoteari (%90) fisikoki pozik egoteari baino (%64). Hala ere, "Gogobeteko sexu bizitza edukitzea" dioen baieztapena mutilek aldeztu dute nagusiki, neskekin konparatuta ia 20 puntuko aldea dagoela.

Dirua irabaztea ere nagusitzen da (%92k), "Denbora libre/aisialdi asko edukitzea"ren aurrean (%83).

Nolanahi ere, datuek balorazio nahiko altua erakusten dute gai askotan (kualifikazioa, lana, munduko beste toki batzuetan gertatzen dena...). Joera hori gogorki hausten da taulako azken bi baieztapenetan. %24ri soilik ardura zaizkie erlijio-gaiak eta, azken tokian, ez dira %15era iristen gai politikoak ardura zaizkienak (bi kasuetan, oso alde nabarmenak daude mutilen eta nesken artean).

#### 128. taula



128. taulatik funtsezko datu bat azpimarratuko dugu, duda izpirik eragiten ez duena: gizarte-eragile guztiei nolabaiteko garrantzia ematen diete balioak helaraztean, baina guztien gaitetik, argi eta garbi gailentzen da familia. Haien ustez, familian esaten dira bizitzan orientatzeko behar diren gauzarik garrantzitsuenak. Eta ez dezagun ahantz nerabeez hitz egiten ari garela.

#### 80. grafikoa

Lehenago ikusi dugu 7-10 urte bitartean desberdintasun jakin batzuk nabari direla sexu-rolak esleitzean. Orain, berriz, urte batzuk geroago egoera nolakoa den ikusiko dugu.

Emaitza on bezala aipa dezakegu emakumea gutxiesten duten adierazpenek, batez beste, %77ko gaitzespina jaso dutela; horrek erakusten digu nerabeak edo gazteak oro har (lautik hiru) emakumeen eskubideen alde daudela. Alabaina, txanpon horren atzealdean ikusten da lau nerabetatik batek oraindik pentsaera matxista erakusten duela.

lido horretan, etxearen eremukoak dira pentsamendu matxistenak erakusten dituzten adierazpenak: nork agindu behar duen etxean (aitak: %13k); nork zaindu behar dituen seme-alabak (amak: %15ek); nork arduratu behar duen familiaz (aitak: %15ek). Kasu horietan nabari dira, hain zuzen, mutilen eta nesken erantzunen arteko alderik handienak.

#### 84. grafikoa

Txostenean aztertu diren desberdintasun guztietatik, konparaketa eginez, ezgaitasunen batekin lotutakoak du onarpen-mailarik handiena ikasleen artean, neskek nahiz mutilak izan.

84. grafikoa ikus daitekeenez, zein den galdera edo zenbaterainoko inplikazio pertsonala eskatzen duen, aldeak nabari dira, eta hizkuntza-ereduaren arabera alde esanguratsuak ere badaude, baina, berriro diogu, konparaketa eginez, desberdintasuna onartzeari buruzko emaitzak aztertutako beste desberdintasun batzuetakoak baino hobeak dira.

#### 85. grafikoa

Erkaketa eginez, itemak beti erkagarriak ez diren arren, datuek erakusten dute etorkinena dela aldeko iritzi gutxien dituen taldea edo haien berdintasuna dela gutxien onartzen dena. Kasu honetan, batez beste, %48ra iristen da grafikoa egiten diren baieztapenekiko desadostasuna.

Baieztapenik errefusatuenak era askotako gaiekin dute lotura: etorkinak kirol-instalazioak erabiltzearekin, beraien ohiturei uko egitearekin edo Europara etorkizun hobearen bila etortzen direlako ideia arbuiatzearekin (%60 ez daude ados



baieztapen horiekin guztiekin, eta, kasu horietan, adierazpenak ezezkoan egin direnez gero, onarpen-maila gisa interpretatu behar dira).

Bestalde, baieztapenik aldeztuenak arazo ekonomikoekin eta gizarte-arazoekin dute zerikusia (adibidez, nerabeetatik %30 nahiko ados edo oso ados daude baieztapen honekin: "Etorrinek lana kendu eta arazoak sor ditzakete").

## 88. grafikoa

Desberdintasunen onartze-mailarekin jarraituz, grafiko honetan bildu ditugu homosexualen ganean eman dituzten erantzunak.

Egindako baieztapenetatik, honako hauek lortu dute adostasun-mailarik handiena: "Nahiago dut heterosexuala izan homosexuala baino" (%54); "Gizarteak homosexualitatea onartuko balu, jende gehiago bihurtuko litzateke homosexual" (%35); "Berdin zait homosexualak ezkontzen badira, baina ezin ditut bi mutil edo bi neska elkarri musuka ikusi" eta "Lotsa emango lidake nire neba/arreba/anaia/ahizpa sexu bereko pertsona batekin ezkonduko balitz" (biek %29).

Beste alde batetik, item hauek sortu dute desadostasunik handiena: "Homosexualitatea gaixotasun bat da", "Inoiz ez nintzateke izango homosexual baten laguna", "Sexualitate askearen aurka nago" eta "Homosexualitatea anormala da eta deuseztatu egin beharko litzateke".. Lortutako puntuazioek erakusten dute kasu horietan guztietan %70 inguruko desadostasuna dagoela.

Oro har, grafikoan hori islatzen ez bada ere, tolerantzia-mailan desberdintasun handiak daude mutilen eta nesken artean: neskak mutilak baino toleranteagoak dira, batez beste, 0,5 toleranteagoak (erabili den 1etik 5erako eskalan).

## 136. taula

Nire aurreko agerraldian, terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arretazko txostena aurkeztu nuenean, datu batzuk eskaini genituen nerabeek ETArekiko eta giza eskubideekiko dituzten jarrerez, eta txosten hura batzorde honetan bertan eztabaidatu zen. Beraz, ez dut orduan esandakoa errepikatuko.

Bakar-bakarrik, laburpen eta oroigarri gisa, taula honetan eskaintzen ditugu egin zitzaizkien bederatzi galderei emandako erantzun zuzenen emaitzak, onarpen-maila handienetik txikienera ordenatuta.

Datu horiek, esan genuenez, kezkatu egin behar gaituzte eta, batez ere, "zeregina eman behar digute" pertsona guztien giza eskubideak defendatzen konprometituta gaudenoi. Baina, gaurko eztabaidan bederen, ez nuke nahi datu horiek txostenean xeheki aztertu diren gainontzeko errealitateak estaltzea. Errealitate horien adibide batzuk behintzat eman nahi izan ditugu orain arteko azalpen honetan.





Dena den, gogoan izan bedi txostenean 250tik gora taula eta grafiko eskaintzen direla eta interesa duen edonork guztiak kontsulta ditzakeela, aurkezpen honetarako aukeratu ditugunetara mugatu gabe.

## **B) ARARTEKOAREN IKUSPUNTUTIK, KEZKAGARRIENAK DIRUDITEN GAIAK**

Arestian adierazi dugunez, txosten honen ezaugarri edo zailtasunetako bat hauxe da: bertan hainbeste gai eta hain desberdinak jorratzen direnez gero, ez dela erraza gutxi batzuk nabarmentzea. Haatik, ikuspegi orokorretik eta eskubideak babestearen ikuspegitik begiratuta, horixe baita erakunde honi dagokiona, gutxienez zortzi gai hauek nabarmendu ditzakegu:

### **1) Desberdintasuna ez onartzea**

Pertsona guztiak errespetatzea eta desberdintasuna onartzea hartu nahi izan dira, zalantzarik gabe, txosten honen ardatz nagusitzat. Kontuan hartu behar da gai horixe dagoela ia bizikidetasun-arazo guztien oinarrian, bai eremu jakin bati erreparatzen badiogu (eskolako eremuari kasu; Arartekoak honen aurreko beste txosten batean aztertu zuen hori), bai gizarte osoari erreparatzen badiogu ere (bereziiki gizarte modernoei, horietan aniztasun handiagoa baitago).

Desberdintasunek zein jatorri duten, aldatu egiten dira tolerantzia eta intolerantzia mailak, txostenean ikusten denez, eman ditugun datuetan oinarrituta. Halaber, itaundutako adingabeen sexuak ere aldaketak eragiten ditu: neskek, oro har, errespetu eta tolerantzia handiagoak erakusten dituzte.

Jarrera horien bilakaera arretaz aztertu beharko litzateke. Hemen, kezkarriena zera da: bide egokian zenbait urrats egin diren arren, intolerantziaren seinale garrantzitsuak ikusten direla oraindik ere, sexismo, arrazismo, xenofobia edo homofobia moduan. Beraz, oraindik asko dago egiteko desberdina onartua izan dadin, eta hori ezinbestekoa da gero eta pluralagoa den gizarte batean.

Lortutako datuen arabera, biztanle-sektorerik onartuena, ikusi dugunez, ezgaitasunen bat duten pertsonena izango litzateke. Aztertu diren gainontzeko sektoreetan, arbuio edo intolerantzia mailak haurren edo nerabeen artean %30 edo %40ra irits daitezke zenbait kasutan. Beraz, ez dira gehiengoaren jarrerak, baina oso hedatuta daude. Eta ez soilik errealitate berrien (immigrazioaren aurrean, kasu) edo gutxi landutakoen aurrean, baizik eta baita aspalditik lantzen ari diren errealitateetan ere, esate baterako, sexuen arteko berdintasunean.

### **2) Kontrabaliu jakin batzuek duten hedadura eta garrantzia**

Hemen kontuan hartu diren balio-eskaletan egiaztatu dugu balio materialistak nagusitzen direla batez ere, askotan kontsumoari eta modei lotutakoak. Salbuespenak, beharbada, harreman onei ematen dieten garrantzia eta nolabaiteko ingurumen-kontzientzia izan daitezke (baina egintzek ez dute beti ingurumen-kontzientzia dagoenik egiaztatzen).





Jakina, balio material horiek ez dira berariaz haurrenak edo nerabeenak. Gizarteko giroa osatzen duten balio edo kontrabaliok dira, gizarte osoarenak, ez bakarrik adingabeenak edo adingabeek sortuak, baina horrek ez du kezka gutxitzen.

Horrela, deigarria da nolako axolagabetasuna edo interesik eza agertzen duten erakunde munduaren itxura hartzen dioten guztiarekiko, erlijio, politika, kultura eta abarrekiko. Axolagabetasun hori ikusten da bai beren lehentasunen eskalan –kognitiboa soilik–, bai beren eguneroko jardueretan, jarduera bakoitzari eskaintzen dioten denboran.

### **3) Eskubideak gutxi errespetatzen dituzten jarrera edo jokabide batzuen hedadura**

Jokabide horien artean daude, esate baterako, pertsona ezagun (guraso eta irakasle) eta ezezagunenganako begirunerik eza, ondasun publikoak ez errespetatzea, zigor fisikoa gizartean onartuta egotea edo zigor fisikoaren erabilera zabaldua egotea (belarrondokoa, portaerak zuzentzeko erabil daitekeen tresna gisa); edo indarkeria onartu eta erabiltzea gatazkak konpontzeko bide gisa, hala berdinen arteko bizikidetzan nola gizarteko edo politikako arazoetan.

Azterlanean ikusten denez, indarkeriazko portaera batzuk, tamalez, uste dezakegun baino ohikoagoak dira, familia barruan nahiz berdinen artean, portaera horiek naturaltzat jotzen dituen edo onartzen dituen gizarte-kultura dagoelako edo beste trebetasun batzuen faltagatik, gaitasun sozialik edo baliabide egokiagorik ez edukitzeagatik agintzeko edo gatazkak modu baketsuan konpontzeko, pertsonen eskubideak errespetatuz. Indarkeriaren erabilera neurri batean onartze hori gizarte eta politika arloetara ere hedatzen da, ikusi dugunez.

### **4) Adinean aurrera egin ahala gertatzen diren eboluzio negatibo batzuk**

Espero izatekoa litzateke adinean aurrera egin ahala, hezkuntzaren ondorioz –zentzu zabalean ulertuta–, funtsezko balioak gehiago finkatzea, norberaren ekintzez eta horien ondorioez gehiago arduratzea, besteenganako errespetu handiagoa izatea, e.a. Txostenak agerian uzten du ez dela beti hala gertatzen, ezta oso arlo zehatzetan ere, adibidez, berez familia-ingurunekoak diren zereginetan parte hartzea (askotan txikienek laguntzen dute gehien) edo irakurketan (zenbat eta nagusiago izan, orduan eta liburu gutxiago irakurtzen dituzte).

### **5) Hezteko eginkizuna betetzen ez duten familiak egotea**

Txosten honek argi erakusten du, erakutsi ere, familiak nolako garrantzia duen balioen transmisioan. Ez dago pareko garrantzirik duen beste gizarte-eragilerik. Horregatik, hain zuzen, kezkarria da ikustea familia frankok ez dutela betetzen hezteko duten eginkizuna, hainbat arrazoi direla medio (astirik ez; gaitasunik ez; eredu txarra; kontrabaliok bereganatu eta transmititzea; eta abar).





Errealitate horri heltzea erronka handia da erakundeentzat, ez baita erraza familia bezalako eremu pribatu batean eragitea, are gutxiago adingabeen egoerak okerrera ez baina onera egingo duen moduan eragitea. Gai horri dagokionez, txostenean zenbait gomendio egin ditugu familiei beren heziketa-eginkizuna hobeto burutzen lagundu diezaieketen baliabide batzuk emateko.

## **6) Teknologia berriak eta hedabideak gehiegi edo era kaltegarrian erabiltzea**

Ziurrenik, arlo horri buruzko beste txosten batzuk egin beharko dira aurrerago, bereziki aztertzeko. Beste arrazoi batzuen artean, azkar eta etengabe aldatzen ari delako. Dena dela, nahiz eta txosten honetan alderdi hori ia zeharka aztertu den, dagoeneko datu ugari ditugu esku artean gazteek IKTak (zehazki, telebista, bideo-jokoak, Internet, sakelako telefonoa) zuzen edo gehiegi erabiltzeari buruz, eta erabilera horietako batzuk haien garapenerako kaltegarriak dira, argi eta garbi: denbora luzeegian erabiltzea; gurasoen kontrolik gabe edo ia kontrolik gabe; praktika arriskutsuak (datu pertsonalak ematea, ezezagunekin elkartzekotan geratzea, sarean jazartzea edo jazarria izatea, eta abar); bideo-joko sexista edo indarkeriazkoak kontsumitzea (mutilen artean, batik bat); telebista aurrean ordu gehiegi ematea (gainera, arrazoi horregatik eztabaidak sortzen dira familian)...

## **7) Arlo honetan eskolak duen betekizun mugatua**

Datu guztiek agerian uzten dute eskolak balioen transmisioan duen betekizuna mugatua dela; horrek ez du esan nahi, ordea, garrantzirik ez duenik. Hori, berez, ez litzateke datu kezkarri bat, egiaztapen soila baizik. Kezkagarria, benetan, zera da: hori horrela izanik, hezteko eginkizun osoa eskolari bizkarreratzen jarraitzen dugula, eta ez diogula arretarik eskaintzen hori bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak diren beste eragile batzuei, hala nola familiari edo teknologia berriei eta hedabideei. Koherentziagatik baino ez bada ere: batak besteak egindako eraikitze-lana ez eraistegatik.

## **8) Nerabe batzuek ETArean aurrean dituzten jarrerak**

Gure gizartean ETArean indarkeria terroristak 40 urte baino gehiagoz iraun du eta oraindik ere jarrai dezake. Horregatik, oso kezkarria da ikustea gure erkidegoan oraindik badagoela nerabe-multzo bat hura, neurri handiago edo txikiagoan, aldeztu duena, edo, bederen, gaitzesten ez duena. Hori hala izanik ere, zorionez, gehienek arbuatu egiten dute.

Halaber, oso kezkarria da ikustea, nerabeen beren erantzunen arabera, ETArean aldeko jarrera horiek familia-ingurunean transmititzen direla, eta beste ingurune batzuetan indartzen (lagun-taldean; eskola ingurunean), inhibizioen eta isiltasunen bidez eta, are gehiago, haren egokitasunari eta baliagarritasunari buruzko mezu esplizituen bidez.

\*\*\*\*\*





Arartekoaren ikuspegitik, kezkarriak diren zortzi elementu horiek azaldu ditugu, baina egia da, halaber, txosten honetan **elementu positibo asko** nabarmendu genitzakeela. Esate baterako:

- Adingabeak oso pozik agertzen dira, oro har, familiarekin, irakasleekin, lagunekin, eta abarrekin.
- Terrorismoaren biktimei babes handia eskaintzen diete.
- Ingurumenaren aldeko kontzientzia nahiko zabaldua dago, teoria mailan bederen.
- Elkartasuna agertzen dute ahultasun-egoera jakin batzuen aurrean (esaterako, ezgaitasunaren aurrean).
- Teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen dituzte, harremanak izateko eta ikasteko beste modu bat bezala.
- Eta, oro har –eta agian hori izango da garrantzitsuena–, hemen aztertu diren alderdi edo balioei dagokienez, askok pertsonen eskubideekiko errespetuzko jarrerak erakusten dituzte edo, desberdintasunaren aurrean, jarrera irekia eta onartzearen aldekoa dute. Ia beti, horrelakoak gehientsuenak dira (batez ere neskek), intoleranteen aurrean.

### C) GOMENDIOAK

Txosten honetan, Arartekoaren txosten guztietan bezala, **gomendio batzuk** egiten dira bukaeran. Kasu honetan, zehazki, 20 gomendio.

Beharbada, aztertu diren arlo bakoitzerako gomendio bereziak egin genitzakeen: sexuen arteko berdintasunari buruz; etorkinen kasuan jatorrizko desberdintasunak onartzeari buruz; ijitoak onartzeari buruz; sexu-joera desberdinak onartzeari buruz; ezintasunen bat duten pertsonak onartzeari buruz; ingurumena zaintzeari buruz; indarkeria gaitzesteari buruz, pertsona guztien giza eskubideak errespetatzeari buruz... Hobe iruditu zaigu, ordea, beste eskema bat erabiltzea. Horrela, dagokion kapituluan ikus daitekeenez (gomendioen kapitulua), zeini egiten zaizkion aintzat harturik ordenatu dira gomendioak:

- Gizarte osoari eta gizarteko erakundeei dagozkien gomendioak (1.gotik 3.era bitarteko gomendioak).
- Familiaren gaineko gomendioak (4.etik 7.era bitartekoak)
- Hedabideentzako gomendioak (8.etik 10.era artekoak).
- Teknologia berriei buruzko gomendioak (11. eta 12.ak).
- Hezkuntza-sistemarentzako gomendioak (13.etik 19.era bitartekoak).
- Eta balioen bilakaera aztertu beharri buruzko gomendio bat (20. gomendia).

Gure ustez, horrela argiago geratzen da zer ardura duen gizarte osoak, erakundeek eta belaunaldi berrietan balioak transmititzen eta eraikitzen parte-hartzerik zuzenena duten gizarte-eragileetako bakoitzak. Izan ere, eragile guztiek koherentziaz eta etengabe norabide berean jardunez soilik lor daiteke haurrek



beraien balioztat hartzea bizitza sozialerako oinarritzotzat jotzen diren balioak. Osterantzean, nork bere bideari jarraitzen badio, beste batzuek behin eta berriz zalantzan jarriko dute eta suntsitu egingo dute eragile batzuek egindako eraikitze-lana. Are gehiago kontuan hartzen badugu balioen transmisioan jarraibidea ematea dela, ziur aski, eskura dauden tresnetatik garrantzitsuena eta eraginkorrena.

- Horrexegatik adierazi dugu lehen hiru gomendioetan balioen arloan gizarte-erantzukizuna sustatu behar dela, eredu txarrak edo kontrabalioak ekidin behar direla eta gizarte-sentsibilizazio handiagoa erdietsi behar dela, erakundeen buruzagitzaren bitartez.

- Halaber, horrexegatik egin ditugu txosten honetan lau gomendio familien gainean (hori ez da batere ohikoa gure txostenetan). Gomendio horien bitartez, helburuok lortu nahi dira: familiarekin igarotzen den denbora hezkuntzarekin bateragarri egitea eta hezkuntzarako aprobetxatzea; gurasoen heziketa erraztea, esaterako, haiei teknologia berrien erabilera kaltegarrietatik babesteko tresnak emanez edo haiekin hainbat trebetasun landuz, errefortzu positiboan erabilera, kasu; seme-alabek etxeko eginkizunetan ardura bere gain har dezaten erraztea, pixkanaka (adinean aurrera egin ahala) eta berdintasunez (sexu biekkin).

- Badira hedabideentzat hiru gomendio ere, bereziki telebistentzat, telebista asko ikusten baita adin txikietan. Haurrentzako ordutegietan programazioa bereziki zaindu dadin eskatzen da (hau da, babes handieneko ordutegian, hori jada araututa baitago, sarritan betetzen bada ere), telebistako produktuen kalitatea eta horien bidez helarazten diren balioak sustatzea. Gainera, hedabideetan parte hartzeko, horiek kontrolatzeko eta horien bilakaera aztertzeko organoak direla eta –legebiltzar honi dagokio gai hori–, egungo araudia berriz azter dadin proposatu dugu, haurren eskubideak babestean berme handiagoa lortzeko, kontu hori ez baita aintzat hartzen orain indarrean dagoen araudian.

- Orobat, bi gomendio berezi egin ditugu teknologia berrien inguruan. Lehenengoaren bidez, hobeto jakin nahi da adingabeek teknologia berriak nola erabiltzen dituzten, eta etengabe eta azkar aldatuz doan gai horren ezaguera gaurkotua eduki nahi da; bigarren gomendioan, adingabeen eskubideak babestearren, baliabide horiei buruzko hainbat gauza arautu beharra dagoela adierazten da. Azken gai hori oso eztabaidatua izan da azken urteotan Europako erakundeetan eta haurrak babesteko erakundeetan.

- Gure gomendio gehienak hezkuntza-sistemarentzat dira. Batzuetan, gomendio berriak dira; beste batzuetan, berriz, Arartekoaren aurreko txostenetan egin ziren gomendioak, baina orain, datu berrien argitan, gehiago zehaztu nahi direnak:

- Ikastetxe guztietan barneratzea eta dibertsitatea erraztu behar dira, desberdintasuna baloratzen ikasteko eta harekin bizitzeko biderik onena baita; beraz, ghettoak sortzea eragotzi behar da, hori egiaz gertatzen baita zenbait ikastetxetan;
- Familien eta irakasleen arteko lankidetzeta hobetu behar da;







- gurasoen eskolak bultzatu behar dira, edo balioetan oinarritutako heziketa lantzea ahalbidetuko duten beste hezkuntza-bide batzuk.
  - Irakasleen turoretza-lana indartu behar da;
  - ikuspegi horretatik begiratuta, berriz aztertu behar da herritarrentzako hezkuntza ezartzea;
  - adingabeek berek eskolako dinamikan dituzten partaidetza eta erantzukizuna hobetu behar dira, hori beraien eskubidea eta betebeharra baita, aldi berean;
  - Lankidetzaren bidezko metodologiaren alde egin behar da. Metodologia horietan gauzatzen dira hemen aztertutako balioetako asko: desberdintasunak onartzea, gatazkak modu praktikoan konpontzea...
- Bukatzeko, txostenean azken gomendio bat egin dugu: aldizka azterketa bat egin beharra dagoela haurren eta nerabeen balioen eboluzioari buruz (haurrek eta nerabeek osatutako biztanleria, normala denez, aldatu egiten da urte batetik bestera). Horrela, aurrerapenak edo atzerapenak egiaztatu ahal izango dira, eta, orduan, indartzeko nahiz zuzentzeko neurri egokienak hartu.

\* \* \*

Horra hor, ezinbestean, txostenaz egin dugun azalpen laburra. Hala ere, aztertutako gaia hain garrantzitsua eta bildutako datuak hain aberatsak izanik, gure ustez, mereziko luke txostena zehatz-mehatz irakurtzea edo, gutxienez, norberari garrantzi berezikoak iruditzen zaizkion gaiak bilatzea. Txostenean hainbat bitarteko eskaintzen dira bilaketa hori errazteko: 90 grafiko eta 150 taula baino gehiagoren aurkibideak eskaintzen dira (horiekin nahiko erraz aurkitzen dira norberari interesatzen zaizkion datuak), eta kapitulu eta idatz-zati batzuetan laburpenak edo ateratako ondorioak agertzen dira, ikuspegi orokorra lortu ahal izateko.

Txostenaren argitalpena hiru bertsiotan egin da: euskaraz, liburu formatuan; gaztelaniaz liburu formatuan; eta CDn. Arartekoaren txostenetan ohikoa denez, txostena argitaratu eta gero, erakunde eta ohiko zerbitzu guztiei helarazi zitzaizkien. Kasu zehatz honetan, gainera, jorrotutako gaia zein den kontuan hartuta, gure autonomia erkidegoko ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzu guztietara ere bidali dugu, ikasturtearen hasieran.

Bukatzeko, Arartekoaren esker ona eta konpromisoa adierazi nahi ditut.

Eskerrik asko txosten hau prestatzen buru-belarri aritu direnei: txostenean lan egin duten erakundeko pertsonari, Javier Elzok zuzendutako Deustu Fundazioko ikerketa taldeari (horrek ustiatu eta aztertu ditu datu guztiak), laginean parte hartu zuten 25 ikastetxeei, ikasle nerabeei, gurasoei, irakasleei eta eztabaida-taldeetan parte hartu eta ekarpenak egin zituzten beste profesional batzuei...

Eta Arartekoak hitzematen du arreta berezia eskaintzen jarraituko duela balioen gaiari, desberdintasuna onartzeari, bizikidetasun baketsuari eta, oro har, haur eta nerabeen eskubideetan gehien eragiten duten egoerei. Lehen aurreratu dudanez, hilabete batzuk barru, batzorde honi beste txosten berezi bat aurkeztea espero dut,





nerabezaroan drogek sortzen dituzten arazoen gainekoa. Eta gaur eztabaidatzen ari garen txostenari buruz, zentzuzko denboraldia igarotakoan, jarraipen-lanak hasiko ditugu, gure gomendioak zenbateraino betetzen ari diren eta hemen aztertutako egoera hobetzen ari den ala ez jakiteko.

Milesker zuen arretagatik. Zuen galderen eta iruzkinen zain geratzen naiz.

